

Xedapen Orokorrak

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA ENPLEGU ETA GIZARTE GAJETAKO SAILA

881

AGINDUA, 2011ko urtarrilaren 20koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontratazio Mahaia sortzen duena.

Ekainaren 19ko 5/2008 Legearen bitartez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, zuzenbide pribatuko erakunde publikoa, sortu zen, garapenerako lankidetzaren arloko eskumenarekin; eta Lege horretako 13.4 artikulua xedatzen duenez, Agentziaren kontratu-jarduera Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari aplikagarri zaizkion xedapenetara egokituko da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Kontratazio Araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 4. artikuluan xedatzen denez, Sail bakoitzean eta, hala badagokio, Erakunde Autonomo bakoitzean Kontratazio Mahai bakarra sortuko da, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren eta dagokion sailburuaren edo erakunde autonomoa atxikita dagoeneko sailburuaren aginduz.

Halaber, aipatutako Dekretu horren Hirugarren Xedapen Gehigarriaren arabera, Dekretu honetako xedapenek, erakunde autonomoei orokorrean aplikagarriak zaizkienak alegia, aplikazio gorabeheri dagokienez, zuzenbide pribatuko ente publikoak ere hartuko dituzte. Eta hori, Administrazio Publikoetako Kontratuari buruzko Legearen arabera, lege horren menpekoak diren kontratazioetan, gehigarritzko xedapenetatik zortzigarrenean ezarritako prebisioak salbuesti egingo direla.

Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 3. artikuluko 2. paragrafoko e) idatz-zatian ezarritakoari jarraiki, eta esleitutako eginkizunak betez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia Lege horren eremu subjektiboaren barruan dago, Administrazio Publiko izaerarekin.

Horren arabera, eta Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordeak txostena egin ondoren, honako hau

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

881

ORDEN de 20 de enero de 2011, del Consejero de Economía y Hacienda y de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, por la que se crea la Mesa de Contratación de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.

Por Ley 5/2008, de 19 de junio, se creó el ente público de derecho privado Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, adscrito al departamento del Gobierno Vasco competente en materia de cooperación para el desarrollo, y el artículo 13.4 de dicha Ley establece que la actividad contractual de la Agencia se ajustará a las disposiciones aplicables a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euzkadi.

El Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euzkadi, dispone en su artículo 4 que en cada Departamento y, en su caso, Organismo Autónomo, se creará una única Mesa de Contratación, mediante Orden conjunta del Consejero de Economía y Hacienda y del Consejero del Departamento correspondiente al que se encuentre adscrito el Organismo Autónomo.

Asimismo, en la Disposición Adicional Tercera del citado decreto, se establece que las disposiciones del mismo que son aplicables con carácter general a los Organismos Autónomos se extenderán, en cuanto a su aplicación, a los Entes Públicos de Derecho Privado en relación con las contrataciones que, conforme a la Ley de Contratos del Sector Público, deban someterse a la citada Ley, con excepción de las previsiones establecidas en la Disposición Adicional Octava.

Con arreglo al artículo 3, apartado 2, letra e) de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, y en atención a las funciones que le han sido encomendadas, la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo está dentro del ámbito subjetivo de dicha Ley con el carácter de Administración Pública.

En su virtud, previo informe de la Junta Asesora de la Contratación Administrativa,

XEDATU DUGU:

1. artikulua.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko ente publikoaren Kontratazio Mahaia.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko ente publikoaren Zuzendaritzari atxikita, aipatutako ente publikoaren Kontratazio Mahaia sortu da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Kontratazio Araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 5. eta 7. artikuluetan aurreikusitako eginkizunak baliatzeko eta artikuluko horietan aurreikusitako jardun-eremuarekin, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen arabera lege horren pean dauden espedientei dagokienez.

2. artikulua.– Aipatutako Kontratazio Mahaiak honako kide hauek izango ditu:

a) Mahaiburutza: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Administrazio eta Zerbitzuetako arduraduna.

b) Mahaikideak:

– Kontratazio organoaren ordezkari bat, organo horrek izendatuko duena.

– Zuzenbidean lizentziatutako pertsona bat, agintzari atxikia, Aholkularitza Juridikoko eta Mahaiaren Idazkaritzako eginkizunak izango dituena.

– Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkari bat.

– Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren ordezkari bat.

3. artikulua.– Ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 6.2 artikulua bigarren paragrafoan xedaturikoaren arabera, modu singularrean egin ez diren izendapenak eta Agindu honetan aurreikusi ez diren ordezkapenak Agentziako zuzendariak erabakiko ditu. Aukeraketa horietan ahalik eta alternantzia gutxien egongo da, eta horien berri espedienteen jaso behar da.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urtarrilaren 20a.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

DISPONEMOS:

Artículo 1.– Mesa de Contratación del ente público de derecho privado Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.

Adscrita a la Dirección del ente público de derecho privado Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, se crea la mesa de contratación del citado ente público, con el ámbito de actuación y para el ejercicio de las funciones previstos en los artículos 5 y 7 del Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en relación con los expedientes de dicho ente que, conforme a la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, deban someterse a la citada Ley.

Artículo 2.– La referida Mesa de Contratación estará compuesta por los siguientes miembros:

a) Presidencia: Responsable de Administración y Servicios de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.

b) Vocales:

– Una persona en representación del órgano de contratación designada por éste.

– Una persona Licenciada en Derecho, adscrita a la Agencia, que ejercerá las funciones de Asesoría Jurídica y Secretaría de la Mesa.

– Una persona en representación de la Oficina de Control Económico.

– Una persona en representación de la Dirección de Patrimonio y Contratación.

Artículo 3.– Conforme a lo dispuesto en el segundo párrafo del artículo 6.2 del Decreto 136/1996, de 5 de junio, las designaciones no efectuadas con carácter singular y las suplencias no previstas en la presente Orden, serán acordadas por el Director o la Directora de la Agencia. Dichas designaciones se efectuarán procurando la menor alternancia posible en las personas designadas y de ellas se dejará constancia en el expediente.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de enero de 2011.

El Consejero de Economía y Hacienda,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

La Consejera de Empleo y Asuntos Sociales,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.